

berria



Arbona-Ahetzen ikastola berri bat irekitzeko bultzada jaso du Seaskak Herri Urratsen
BIZIGIRO • 38-39

Presoen fotoak erakustea eta «terrorismoa goratzea» lotu ditu Auzitegi Nazionalak

Auzitegiak Iruñerriko lau laguni leporatu die aurtengo Korrikan euskal presoen argazkiak eraman zituztela eta hala «terrorismoa goratu» zutela • Haietako hiru atxilotu egin dituzte, eta gero aske utzi

EUSKAL HERRIA • 8

Kaledonia Berriko independentistek diputatu bat gehiago dute, baina loialisten azpitik daude oraino

Igandeko hauteskundeetan 28 eserleku lortu dituzte unionistek, eta 26 abertzaleek. Galdeketari so jarriko dira.

MUNDUA • 13

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK

Memoria. Nafarroan gertatu zena agerrarazteko politikak

Hondakinak. Errausketak 2015ean eduki zuen oihartzun hura gabe

HARIAN • 2-6

Txinak AEBetako inportazioak zigortu ditu, Trumpen muga zergei erantzuteko

Merkataritza gerra betean sartu dira bi herrialdeak. Zerga gehiago iragarri ditu Trumpek.

EKONOMIA • 11

Iruñeko masajista bati sexu abusuak leporatu dizkiote hiru emakumek

EUSKAL HERRIA • 10

Artea gerra arma da
Jon Argintxona Badiola

IRITZIA • 16

Gipuzkoako Foru Aldundiak gaur jarri du martxan N-1ean kamioientzako bidesari sistema berria

EKONOMIA • 12

Baionan 2015etik 99 eraso homofobo zenbatu dituzte; horietatik hamabi, fisikoak

LGTBI kolektiboko 247 laguni inkesta egin die Les Bascos-ek, eta herenek erantzun dute noizbait jasan duela eraso bat • Fisikoak izan ohi dira erasoaren %8,4

EUSKAL HERRIA • 7

ANE ETXEZARRETA

REALEKO JOKALARIA

«Sasoi honetan Realak salto handia egin du esparru guztietan»

Patrick Ozafrain. Trinketa biziarazi duen bizitza bat

TANTOA • 20-21



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Apirilaren 1ean ekitaldi berezia egin zen Iruñeko hilerrian. IDOIA ZABALETA / FOKU



MEMORIA

Duintasuna azaleratu da lurpetik

Joxerra Senar Iruñea

Hutsune handi bat betetzen hasi dira, azkenik, Nafarroan. 1936ko gerran frankistek fusilatutako milaka herritarren arrastoak ez dira lurpetik atera 80 urtez. Orain arte, Nafarroako erkundeek ez dute zirkinik egin. Legealdi honetan, lau alderdien bultzadaz, hori aldatu eta duintasuna lurpetik azaleratu dute Nafarroako Gobernuak eta aldatearen udalek. Lau urteotako aldaketa instituzionalak utzitako emaitzarik ukigarrienetako bat izan da akaso.

2015eko udan Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Dugu-k eta Ezkerrak akordio programatikoa izenpetu zutenean, agerian geratu zen memoria historikoak hartuko zuen garrantzia. Gobernuaren egitu-

Memoria historikoaren esparruan, 80 urte iraun duen hutsune handi bat betetzen hasi dira aldatearen erakundeak. Gerrako 84 fusilaturen arrastoak aurkitu, hobien mapa osatu eta diktadurako ikurrak kentzea bultzatu dute.

ran bertan, lehen aldiz, Bake eta Bizikidetzaren zuzendaritza eratu zuten, eta legealdiaren bukaera aldera, iaz, Memoria Historikoaren institutuaren proiektua aurkeztu zuten.

Ez zen aurpegi aldaketa hutsa izan. Ordura arteko hutsunea es-tali nahirik, fusilatuen arrastoak berreskuratze-ko lana bultzatu du go-bernuak, Aranzadi zientzia elkartearen laguntzaz. Lau urteotan, 84 biktimaren gorpuzkiak berreskuratu dituzte. Azkena, Anuen, Ezkabako presondegitik ihes egin zuten hiru lagunen arrastoak aurkituta. Hobien mapa bat osatuz joan dira, halaber.

Legealdi amaieran, apirilaren 1ean, ekitaldi berezia egin zen Iruñeko hilerrian. Aurreko bi urteetan Nafarroan lurpetik ateratako 46 biktimaren arrastoak mo-

du duin batean hobiratu zituzten berriro, gerrako biktimen ome-nezko panteoian –46 horietatik 36 identifikatu gabe zeuden–. «Batzuek esaten dute ekitaldiok zauriak berriz irekitzen dituztela, baina egiazki zauriak ixten laguntzen dute», aldarrikatu zuen go-

Iruñeko Udalak Molaren eta Sanjurjoren gorpuzkinak atera zituen Erorien Monumentutik, eskuinaren protestak protesta

Auzitegiek oztopatu egin dute motibazio politikoko biktimen aitortza, 2015eko legea eta ikerketa lan bat baliogabetuz

bernuak. Alta, 80 urtez ezer egin ez izanaren ondorioz, lan handia dute egiteko. Senideetako asko hiltzen ari diren heinean, denboraren aurkako lasterketa bat da.

Era berean, 2013ko memoria historikoaren legea betez, ikur

frankistak eta diktadurako agintarien izenak erakundeetatik eta kale izendegietatik kentzera behartu dute. Zeregin horretan, bi une gogoangarri nabarmendu dira. Batetik, Iruñeko Udalak Rodeznoko Kondea plazaren izena kendu eta Askatasunaren plaza izena jarri zion. Gainera, udalak altxamendua bultzatu eta babes-tuzuten Emilio Mola eta Jose Sanjurjo jeneralen gorpuzkiak eta beste bost militarrenak atera zituen Erorien Monumentutik.

Bestetik, gobernua kendu egin zuen Nafarroako armarrira bere egoitza nagusitik. Fructuoso Orduna eskultoreak 1951n egin zuen armarrira, eta gurutze erenoztuna zuen, Espainiako armadaren saririk preziatuena –Francisco Franco diktadoreak 1937an eman zion Nafarroari, gerrara joandako boluntarioek kolpe militarri emandako babesagatik–. Kasu guztiotan, eskuinak ozen egin zuen protesta, baina denborarekin isilduz joan ziren.

Iragan hurbileko memoria

UPNk eta PPK are jarrera gogorragoa erabili dute frankismo amaierako eta ondorengo biktimekin. Alderdi popularrak auzitegira eraman zuen 2015eko motibazio politikoko biktimen legea, eta iragan udan Auzitegi Konstituzionalak balioagabetu egin zuen haren eduki nagusia. Biktima horiei aitortza eman asmoz, laukoak oreka zail bati eutsi nahi izan dio, eta otsailean lege berri bat onartu zuen: batetik, Konstituzionalak epaian ezarritako mugak onetsiz, eta, bestetik, biktima horietako batzuei aitortza instituzionala eman asmoz.

Auzitegiek bestelako balaztak ezarri dituzte. Memoriaren inguruko azterlanak sustatu asmoz, gobernuak lehiaketa publikoa antolatu zuen, eta 30.000 euroko laguntza adjudikatu zion EHUKo ikerketa talde bati. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin bezala, tortura eta eskuin muturraren indarkeria ikertzea zuen helburu lanak, baina Nafarroako Auzitegi Nagusiak balioagabetu egin zuen iazko urtarilean.

Dena den, bestelako pausoak eman dituzte. Adibidez, Foro Sozialarekin batera, 2016ko azaroan ETaren biktima batzuk eta motibazio politikoko beste batzuk elkarrekin jardun zuten parlamentuan. Halaber, 2017ko apirilean, frankismotik hona tortura jasadako hainbat belaunalditako emakumeren lekukotzak entzun ziren. Sinbolismo handiko keinu txikiak, orain gutxi arte ezer egin ez zen tokian: parlamentuan.



BOZ GORA

Maider Galardi F. Agirre



Euskal amerikanoak

Serio itxura ematen duen arropa, baina ez eleganteegia. Klik. Makillaje apur bat, baina ez sobera. Klik. Burua altxa, baina ez harrokeriaz. Klik. Irribarre abegikor bat. Klik. Besoak gurutzatu. Klik. Photoshopean jarri Hego Euskal Herriko edozein herritako paisaia, eta nahieran aldatu alderdi bateko edo besteko koloreak. Hautagaia nor den, horren arabera gehitu alderdiaren sigla ala ez. Ez handiegi, halere, ez dezala alderdiaren zamak hauteskunde kanpainan eragin handiegirik izan. Ez baita politika; Donostia da, Barakaldo da, Oion da. Ez baitira politikariak; kirolariak dira, aktibistak dira, abeslariak dira.

Herri eta hirietako kaleetan ez da besterik. Aurpegi bat, plano erdiko argazki bat, asko jota. Kanpainak modu analogikoan bizitzeari utzi diotenek ere gauza bera ikusiko dute sare sozialetan: ez dakit nongo hautagaia abesti bat egin duela auzo baterako eskuartearen dituen proiektuekin, beste hark ongi ezagutzen dituela bere hiriko txokoak, korrika egitera irteten delako. Beste honek musikaletako Donostia nahi duela. Erraz egin genezake kazetariok alkategaien curriculum intimoa ere. Herri eta hirietako proiektuak zein diren, ordea, kostatzen da asmatzea.

Herri proiektuak indartzeko aukera dira bozak, baina badirudi ikur pertsonalistak lehenetsi dituztela, alderdiek izan dezaketen eragina ezkutatzearren. Nor bere okasioaren bila

Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden instituzioak, baina gehiegizko pertsonalizazio horrek herritarrengandik urruntzen ez ote dituen, horra zalantza. Hezur-mamizko alkategaia era-kutsi dituzte bateko eta besteko alderdiek, baina, bestelako berezitasunik ezean, gainontzeko zere-dakideak nor diren kartele-tan jarri ezean, nekez bereiz litez-ke batzuk ala besteak. Eta kontuan hartuta alderdi batzuek behintzat egiten dutela herri mailako politikaren eta proiektu komunitarioen alde, ia kontrae-sanezkoa dirudi hartutako nora-bide pertsonalistak.

Hainbat hautagairen bideok ezinbestean gogorarazten dute Alexandria Ocasio Cortez AEBetako kongresista demokrata. New Yorkeko Bronxen jaiotako emakume gaztea da Cortez, jatorriz latinoamerikarra, eta sare sozialetan sekulako arrakasta du. Milioika jarraitzaile ditu, eta haren jardunak lortzen du aise ibiltzea pribatuaren eta publikoaren arteko muga horretan. Eta politikaren eta merkatinaren mugan eroso aritzea ere bai.

Hori baita kontua; datozen hauteskundeetako kanpainak badutela mendealdetik datorren joera publizista hori. Nola-koa den alderdi bakoitzaren proiektua, eta pareko okindegiko jabeak ala herri antzerki taldeko zuzendaritzako kideak osatzen duten zerrenda, gutxi axola du horrek orain. Baina hau ez da AEB, eta hemengo hautagaia ez dira AOC –hori da Cortezen marka pertsonala–. Askok jota, badira orain arte agintean egon ez diren hautagai emakumeak, euskaldunak, eta, zergatik ez, ertzetakoak. Kontua da hegemonia lortzeko hautatutako bide hori egokia ote den, eta, are, zuriketa morearen ertzean ez ote diren batzuk.

Herri proiektuak indartzeko aukera dira bozak, baina badirudi ikur pertsonalistak lehenetsi dituztela, alderdiek izan dezaketen eragina ezkutatzearren. Nor bere okasioaren bila.

Irudia • Iruñea



Pablo Casado, Navarra Sumarekin bat

Enrique Maia Iruñeko alkategaia eta Ana Beltrán PPko buruzagia alboan zituela, atzo Pablo Casadok Navarra Sumari babesa eman zion Iruñean. Entzieroaren ibilbidean izan zen, eta herritar batek «tentel» deitu zuen. Navarra Suma «asmatu» duela uste du, eta abertzaleen eta ezkerrean aurkako «euste-horma» dela: hark dioenez, eskuinak bat egitean irabazi ohi du, eta sakabanatuta galduta. V. LOPEZ/EFE



«Madrilekin parez pareko erlazioa izateko proposatzen dugu subiranotasun ekonomikoaren lehendakaritza izatea»

Bakartxo Ruiz
EH Bilduko lehendakariagaia

AHTaren aurkako manifestaziora deitu dute 18an

IRUÑEA • Nafarroako hainbat taldek uste dute «erabat beharrezkoa» dela AHTaren gaia kanpainan izatea. Ohartarazi dute iraganeko eredu dela, eta Europak laguntzak murriztuko dituela. AHTaren aldean, egungo trenari eustea eta hobetzea proposatzen dute. Larunbatean Gasteizen 12:30ean egingo den manifestaziora deitu dute.



«Esparza presidente izateko aukera baztertu dute askok. Jendeak erabaki beharko du agintari sozialista baten eta nazionalista baten artean»

Maria Txibite
PSNko lehendakariagaia

Ludopatiari aurrea hartzeko plana aldarrikatu dute

IRUÑEA • Nafarroako Ahal Dugu-ren arabera, ludopatia familia askoren drama da: «2017an, 75 milioi gastatu ziren kirol apustuetan». Horren aurrean, Ainhoa Aznarez hautagaia proposatu du berehalako plan bat abian jartzea ludopatiari aurre egiteko: «Ezin da onartu tokiok haurren parke batean alboan izatea».